

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezero berriak erakartzeko, sare sozialen bidez hainbat ekintza egingo ditugu: zozketak esaterako. Hainbat jarraitzaile dugunean, gero eta zozketa handiagoak egiteari ekingo diogu.

Baita ere, hainbat influencer-rekin kontaktuan jarriko gara, gure arropa marka promozionatu dezaten. Komunikabide tradizionaletan ere promozionatuko gara, ahalik eta jende gehiena erakartzeko. Telebistako kanal garrantzitsuetan iragarkiak jartzea oso garestia denez, gure bezero potentzialen eremuko irradian eta interneten jarriko ditugu iragarkiak.

Bezeroak fidelizatzeko, ahalik eta zerbitzu hoberena ematen saiatu behar gara. Interneten bidez erosten dutenei, produktua ahalik eta lasterren ekartzea izango da. Arropa denda fisikoan, erosten duten bezeroei langileak tratu on bat eman beharko diete langileek.

Bezeroak mantentzeko txartel bat aterako ditugu, horiek hainbat motatako deskontuak jasoko dituzte. Gainera I.B.Aren bazkide izateko aukera emango diegu bezeroei. Bazkidea izateak, hainbat motatako abantailak (deskontuak eta promozioak) ekarriko dizkie bezeroei.